

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
HEZKUNTZA PREMIA BEREZIEN OINARRI PSIKOPEDAGOGIKOAK	151311	2025-2026
Titulazioa	Maila	Seihilekoa
GRADUA: HAUR HEZKUNTZA	2	1
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
OINARRIZKO PRESTAKUNTZA	6	EUSKERA
Irakaslea(k)		
AMAIA JAUREGI ORBE		

Justifikazioa
Ikasgai honen bidez Haur Hezkuntzako etorkizuneko irakasle profesionalek aukera izango dute gorputz, adimen edota zentzumen aniztasun funtzionalari eta adimen gaitasun handiei loturiko hezkuntza premiak ezagutzeko, baita egungo hezkuntza sistemak aniztasun honi ematen dion erantzunaren gakoak ulertu eta bereganatzeko ere. Haur Hezkuntzako geletan aurki ditzakegun hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak anizkoitzak direla kontuan izanik, ikasgaiak, eskola muin-bakar eta barne-hartzailearen eremuan, hezkuntza esku-hartzea bideratzeko beharrezkoak diren oinarri psikologiko eta pedagogikoak norbereganatzeko aukera eskaintzen du. Bestalde, hezkuntza arretarako jarrera kritiko eta konprometitua hartzeko aukera ematen du, hezkuntzaren oinarrizko printzipioak kontuan hartuta. Hori guztiori kontuan izanda kasu bakoitzean hainbat direla elkar eraginean dauden aldagaiak eta Hezkuntza Premia Bereziak ez direla unibertsalak ezta egonkorrak ez aldagaitzak. Aldi berean gaur egun, guztiontzako kalitatezko hezkuntza eskaintzeko asmotan, hezkuntza eraginkorra eta inklusiboa lortzeko funtsezko prestakuntza bereganatu behar dute ikasleek, beti ere aintzat hartuta bizitza kalitatea, guztion garapen pertsonala eta soziala errazteko bideak eta gizarte anizkoitz honetan eskubide eta betebeharrak berdintasuna lortzeko erronka. Horrenbestez, ikasgai honetan, eztabaida, esperientzia partekatzea, irakurketa kritikoa, elkarriketak, etab. erabiliko dira etorkizuneko irakasleek hezkuntza premien berezitasunak ezagutzeko gakoak uler ditzaten eta, ondorioz, premia horiekin eta egungo gizartearen berrikuntzekin bat datozen erantzunak bideratu ditzaten.

Aurrebaldintzak
Ez dago

Gaitasunak

Gaitasun orokorra

G O 8.1. Sen Etikoa. Lehenengo menderatze maila

- Nortasun morala eta oinarri etikoak identifikatzea, ezagutzea eta aplikatzea

Berariazko gaitasunak

- BG1. Gizartearen anizkoiztasunak hezkuntzan duen eragina modu kritiko batean aztertu giza eskubideak bermatzen dituen testuinguru bat eraikitzeko. Hau guztia, oinarrizko kontzeptu gaurkotuetan eta integrazio, normalizazio, irisgarritasun- eta diseinu- unibertsala printzipioetan oinarrituta.
- BG2. Hezkuntzan esku-hartzearen garapenerako bidezkoak diren estrategiak neurriak eta profesional ardurak identifikatu marko muin-bakar eta barne-hartzailearen planteamenduan oinarrituta guztiontzako kalitatezko hezkuntza bermatzeko.
- BG3. Eskolako aniztasun testuinguruetan hezkuntza premia bereziei erantzun egokia emateko Ikas-irakaskuntza prozesuak aztertu ikasle guztien singularitasuna eta beharrianak kontuan hartuta.



Garapen iraunkorrerako helburuak eta Laudato sí' helburuaren presentzia ikasgaian



GHI 4. Kalitatezko hezkuntza.



OLS 6. Hezkuntza ekologikoa

2030 Agenda Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren printzipioetan eta balioetan oinarritzen da. Abiapuntutzat hartzen da hezkuntza oinarrizko eskubidea dela, beste giza eskubide batzuk bermatzeko beharrezkoa. Beraz, funtsezkoa da hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa izatea bai haurtzaroan, bai bizitza osoan zehar. Hezkuntza hori ikasle guztiei zuzenduta dago, elkarrekiko onarpenetik eta aniztasunetik abiatuta; hezkuntza-komunitate osoa inplikatzeko du; eta hezkuntza-diseinuen eta -praktiken eraldaketari egiten dio erreferentzia, ikasle guztiek, salbuespenik gabe, pareko aukerak eta kalitatezko hezkuntza izan ditzaten.



ODS10. Desberdintasunak murriztea.

Irakasleen hasierako prestakuntzan, garrantzitsua da desberdintasunez jabetzea, enpatia sentitzeko gai izatea eta diskriminazio-egoerak bizi dituzten pertsonen elkartasuna adieraztea. Horretarako, beharrezkoa da, alde batetik, desgaitasun- eta bazterkeria-egoerak sortzen dituzten oztopoak jasaten dituzten pertsonak ezagutzea, ahotsa ematea eta entzutea. Bestalde, funtsezkotzat jotzen da garapen iraunkorrerako hezkuntzaren oinarri diren printzipioak ulertzea.



GHI 11. Hiri eta komunitate iraunkorrak.

Irakasle inklusibo batek ikusi behar du ingurune inklusiboak, irisgarriak eta seguruak lortzeko beharrezko garrantzia. Beraz, gizakiaren oinarrizko behar fisiko, sozial eta psikologikoak ulertu behar ditu bere kokagune fisikoetan (hirian, eskolan, ...) behar horiek nola lantzen diren ikusteko. Era berean, funtsezkotzat jotzen da elementu bideratzaileak eta oztopoak (jarrerazkoak, fisikoak, komunikaziozkoak, kognitiboak edo edozein motatakoak) behatzea eta deskribatzea, hauek baitira giza eskubideez baliatzea eta aukera berdintasunean parte hartzea ahalbidetu edo oztopatzen dituzten aldagaiak.

Helburu horiek lotura estua dute irakasgaiaren gaitasun espezifikoekin

Edukiak

1. Kontzeptualizazioa
 - Aurreiritziak eta adierazpena
 - Oinarrizko kontzeptuak eta bidezko terminologia
 - Begirada aldaketa eta (des)gaitasuna ulertzeko ereduak
 - Printzipio Nagusiak (Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Nazioarteko Konbentzioa [CDPD] eta Agenda 2030)
2. Hezkuntza erantzuna
 - Eskolak aniztasunari emandako erantzun ereduaren bilakaera.
 - Gaur egun eskolak aniztasunari ematen dion erantzuna guztiontzako eskola eraginkorra eta kalitatezko hezkuntza bermatzeko asmotan.
 - Hezkuntza premia bereziei emandako arreta eskola inklusiboan.
 - Ikaskuntza irisgarria eta Ikaskuntzaren diseinu unibertsala
 - Laguntza zerbitzuak
 - Autonomia eta partehartzea ahalbidetzen dituzten euskarriak
 - Profesional ardurak
3. Hezkuntza esku-hartzea
 - Gorputz, adimen edota zentzumen (des)gaitasun egoeran dauden ikasleak eta adimen gaitasun handiak dituzten ikasleak
 - Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak zein adimen gaitasun handiak dituzten ikasleak kontuan hartzen dituzten proposamen inklusiboak
 - Jarduera eta estrategia metodologikoak

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Ikasgaia ondoren deskribatutako estrategien arabera garatuko da:

- Ikasgaia testuinguruan jartzea, ahalbidetzen duten jarduerak: gizartearen eta hezkuntzaren errealitatearekin kontaktatzeko xedez asmatutako jarduerak, eta bizipen esanguratsuetatik abiatzea ahalbidetzen dutenak, hala nola, elkarrizketak, galderak, ikusitako bideoak, irakurketa iradokitzaileak, eztabaidak, testuen edo errealitatearen azterketak.
- Hausnarketa pizten duten jarduerak: hausnarketa kritikoa egitera, norberaren pertzepzio eta sinesmenak zalantzan jartzera eta norabide eta erantzunak bilatzera bultzatzen duten jarduerak. Besteak beste, honako ekintza hauek sartzen dira hemen: gogoeta orientatzen duten galderen gidoiak, bideratutako behaketak, eta ikus-entzunezko materialen azterketa eta eztabaida.
- Kontzeptualizazio aktiboa sustatzeko jarduerak: banakako eta taldekako jarduerak, ulermen sakona lortzeko eta hezkuntza-errealitateari eta beraren testuinguru sozialari aplikatu dakiekeen ezagutza eskuratzeko: azalpenak, irakurketak, mintegi-saioak, datuak bilatzea eta ikerketa soilak egitea.
- Jarduera praktikoak: gaitasunen esperimentazio aktiboa ahalbidetzeko diseinatuta, hala nola jarduerak diseinatzea, kasuak aztertzea eta jorratzea, tailer praktikoak eta aurkezpenak.

- Ebaluaketa-jarduerak: proposatutako berariazko gaitasunak eta gaitasun generikoak eskuratzeko prozesuaren ebaluaketarako diseinatuta.

Proposatutako denbora-banaketa: 6 ECTS = 150 ordu.

- 42 ordu ikasgelako jarduerarako: eduki teorikoen aurkezpena eta azalpena, banakako eta taldekako jardura praktikoak, simulazioak eta role-play ekintzak, kasuen azterketa eta eztabaidak.
- 108 ordu ikasgelatik kanpoko jardura pertsonalarentzat eta taldekako lanarentzat: testuak irakurtzea eta aztertzea, ariketa eta galdetegiak, eskemak lantzea, banakako eta taldekako lanak prestatzea eta egitea, proba objektiboetarako ikasketa, datuak bilatzea eta tutoretzak.

Ebaluazioa

Ikasgai honen prozesua eta beraren gaitasunen garapena ebaluatzeko, teknika hauek erabiliko dira:

- Proba objektiboak: % 40.
- Banakako edota taldekako zereginak: % 60.

Kalifikazioa: BG1 + BG2 + BG3 = % 90 eta GG1: % 10.

Adimen artifizialaren eta itzultzaile automatikoen erabilera irakaslearekin adostuko da, eta ezein kasutan ezin izango du ordeztu ikaslearen sormen- eta ikasketa-lana.

Dokumentazioa

- 1/2013 *Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duena.* https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2013/12/03/pdfs/BOE-A-2013-12632-E.pdf
- 3/2020 *Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena.* [BOE-A-2020-17264]. <https://www.boe.es/eli/es/lo/2020/12/29/3>
- 6/2022 *Legea, martxoaren 31koa, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina – azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua – aldatzen duena, irisgarritasun kognitiboa eta hori eskatzeko eta aplikatzeko baldintzak ezarri eta arautzekoa* <https://www.boe.es/eli/es/l/2022/03/31/6>
- 75/2023 *DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.* <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/06/2302727e.pdf>
- 78/2024 *DEKRETUA, ekainaren 18koa, hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzutzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat.* <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2024/06/18/78/dof/eus/html/>
- 78/2024 *DEKRETUA, ekainaren 18koa, hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzutzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat.* <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2024/06/18/78/dof/eus/html/>
- Acosta, V. M. (2006). *La sordera desde la diversidad cultural y lingüística. Construyendo centros inclusivos en la educación del alumnado con sordera.* Masson.
- Agustí, F.J., Angulo, A., Martí, A., Pérez, N., Tormo, E. eta Villaescusa, M. I. (2021). *Diseño Universal y Aprendizaje Accesible. Modelo DUA-A.* Generalitat Valenciana. Conselleria d'Educació, Cultura i Esport. <https://portal.edu.gva.es/cefireinclusiva/wp-content/uploads/sites/193/2023/04/DUAA23c.pdf>

- Alfaro-Rojas, L. (2013). Psicología y discapacidad: un encuentro desde el paradigma social. *Revista Costarricense de psicología*, 32(1) 60-65.
- APNABI. *Autismo Bizkaia*. [Webgunea]. <https://www.apnabi.eus/?lang=eu>
- Ararteko. (2001). *EAEko hezkuntza Premia Berezeiei emandako erantzuna. Arartekoren argitalpen zerbitzua*
- Arasaac. Komunikazio Handigarri eta Alternatiborako zentro Aragoiarra. [Webgunea]. <https://arasaac.org/>
- Aupatuz. Adimen gaitasun handiko haurren euskal elkarte. [Webgunea]. <https://aupatuz.eus/>
- Basil, C. (2017). ¿Qué son los SAAC?. <https://aulaabierta.arasaac.org/wp-content/uploads/2017/04/que-son-los-saac.pdf>
- Berrueto, R eta Conejero, S. (Koord.) (2009). *El largo camino hacia una educación inclusiva*. I eta II bol. Nafarroako Unibertsitate publikoa.
- Berzosa, T. (2024/05/30). Accesibilidad en la comunicación. <https://www.discapnet.es/accesibilidad/accesibilidad-en-la-comunicacion>
- Cañizares, G. (2015). *Alumnos con déficit auditivo: un nuevo método de enseñanza-aprendizaje*. Narcea, D.L.
- CERMI. Comité de representantes de personas con discapacidad. *Tecnologías educativas accesibles*. (2015). *Guía de recursos*. Secretaría General Técnica. Centro de Publicaciones. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. <https://www.libreria.educacion.gob.es/libro/tecnologias-educativas-accesibles-guia-de-recursos-181651/>
- Confederación Asperger España. [Webgunea]. <https://www.asperger.es/>
- Confederación estatal de Personas Sordas. [Webgunea]. <https://www.cnse.es/>
- Couto, C. eta Aretxaga. (2017). Ikaskuntzarako diseinu unibertsala. *Arbela*, 49, 55-64.
- CREENA- NHBBZ. Nafarroako Hezkuntza bereziko baliabide zentroa. [Webgunea]. <https://creena.educacion.navarra.es/web/eu/>
- Delgado, Clara I. eta Vigar, Ángela. (2021). *35 cuestiones sobre comunicación aumentativa-alternativa con productos de apoyo*. Centro de Referencia Estatal de Autonomía Personal y Ayudas Técnicas (Ceapat), del Instituto de Mayores y Servicios Sociales (Imsero). <http://riberdis.cedid.es/xmlui/handle/11181/6341>
- Discapnet. El Portal de las Personas con Discapacidad [Webgunea]. <https://www.discapnet.es/>
- Echeita, G. (2017). *Educación inclusiva. Sonrisas y lágrimas*. *Aula Abierta*, 46(2), 17-24. <https://doi.org/10.17811/rifie.46.2.2017.17-24>
- Echeita, G. (2021). *La educación del alumnado considerado con necesidades educativas especiales en la LOMLOE. Avances en supervisión educativa*, (35). <https://doi.org/10.23824/ase.v0i35.721>.
- Echeita, G. (2022). Evolución, desafíos y barreras frente al desarrollo de una educación más inclusiva. *Revista Española de Discapacidad*, 10(1), 207-218. <https://www.cedid.es/redis/index.php/redis/article/view/856>
- EducaRed Portal de Fundación Telefónica. [Webgunea]. <https://educared.fundaciontelefonica.com.pe/>
- Eduka. *Tecnologías de la información y comunicaciones para la enseñanza básica y media*. [Web orrialdea] <http://www.eduteka.org/>
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritza. (2021) *Irakasle profila*. Eusko Jaurlaritza. <https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/irakasleen-profila/0002021003e-Pub-EJ-irakasleen-profila-e.pdf>
- Euskal gorrak (2025). *Zer da zeinu hizkuntza?*. [Web orria]. <http://www.zeinuhizkuntza.info/>
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila. [Webgunea]. <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila. (dg-a). *Hezkuntza curriculumgunea*. [Webgunea]. <https://curriculum.euskadi.eus/es/curriculum>
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila. (dg-b). *Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari erantzuna*. [web orria]. <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-inklusiboa-aniztasunaren-trataera/web01-a3hinklu/eu/>
- Eusko jaurlaritza. Hezkuntza saila. (dg-c). *Laguntza zerbitzuak*. [Web orria]. <https://www.euskadi.eus/web01-a3hiherr/eu/contenidos/informacion/ink-fami-herri-lagun-zerbitzua/eu-def/index.shtml>

- Eusko jaurlaritzak. Hezkuntza saila. (dg-d). *Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak / Lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako jarraibideak*. [Web orria]. <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berriatza-orientabideak-jarraibideak/web01-a3hinklu/eu>
- Eusko jaurlaritzak. Hezkuntza saila. (dg-e). *Aniztasuna eta inklusioa. Dokumentu eta argitalpenak*. [Web orria]. <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berri-esk-inklusihoa-dokumentuak/web01-a2inklu/eu/>
- FEKOOR. Gutxitasun fisikoa edota organikoa duten pertsonen bizkaiko federazio koordinatzailea. [Webgunea]. <https://fekoor.com/?lang=eu>
- FEVAS. Plena inclusión Euskadi. *Adimen- edo garapen-desgaitasuna*. [Webgunea]. <https://fevas.org/eu/adimen-edo-garapen-desgaitasuna/>
- FEVAPAS. Federación Vasca de Asociaciones de Familias de Personas Sordas. [Webgunea]. <https://fevapas.org/>
- Fundación ONCE. Desgaitasuna duten Pertsonen Lankidetzarako eta Gizarteratzeko ONCE Fundazioa. [Webgunea]. <https://www.fundaciononce.es/eu>
- Gallardo, Miguel Ángel y Alemany, Inmaculada. (Koord). (2019). *Las actitudes ante diversas realidades sociales. Buenas prácticas para la educación inclusiva*. Ed. Colares.
- Gómez, Inmaculada eta García, Francisco Javier (Koord). (2021). *Manual de didáctica general para la diversidad*. Pirámide
- Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea (UNESCO). (2017). *Garapen Iraunkorrerako Helburuetarako Hezkuntza. Ikaskuntza-helburuak*. UNESCO
- Horna, Marlene. (2021). *Niños y niñas con espectro del autismo. Comprensión y estrategias prácticas de apoyo educativo*. Editorial CCS.
- IBT-CRI Bilbao. (2019). *Braille irakurketa-idazketaren irakaskuntzarako gida. Ikaskuntzen programazio didaktikorako eduki eta materialen analisisa eta egituraketa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- INSTRUMENTO de Ratificación de la Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad, hecho en Nueva York el 13 de diciembre de 2006*. [BOE-A-2008-6963]. <https://www.boe.es/eli/es/ai/2006/12/13/1>
- INTEF. Instituto Nacional de Tecnologías Educativas y de Formación del Profesorado. [Webgunea]. <https://intef.es/>
- ISEI-IVEI. Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea - Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa. [Webgunea]. <http://www.isei-ivei.net>
- ISEI-IVEI (2005). *Hezkuntza-Premia Bereziak lehen Hezkuntzan. Euskal sistemaren erantzuna*. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Jauregi, A., Bernarás, E., eta Jaureguizar, J. (2020). Derechos humanos desde la diversidad lingüística e identitaria de las personas sordas. *Deusto Journal of Human Rights*, 5, 187-213. <https://doi.org/10.18543/djhr.1748>
- Lidón, L. (2014). El acceso a la justicia: Una visión desde la discapacidad. In *Nuevas tecnologías y personas con discapacidad*. Consejo Judicial del Poder Judicial.
- López, M., Jiménez, M., Guerrero, D. eta Liñán, M. (2010). *Necesidades específicas de apoyo educativo asociadas a discapacidad y problemas graves de conducta. (Infantil, Primaria y Secundaria)*. Universitas.
- Marín D eta Fajardo, I. (Koord). (2018). *Intervención psicoeducativa en alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo*. Tirant Humanidades.
- Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Saila. [Webgunea]. <https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/inicio>
- NHBBZ. Nafarroako Hezkuntza bereziko baliabide zentroa. [Webgunea]. <https://creena.educacion.navarra.es/web/eu/>
- ONCE. [Webgunea]. <https://www.once.es/otras-webs/euskera>
- ONCE Educación inclusiva. *Guía de Tiflotecnología y Tecnología de Apoyo para uso educativo. Catálogo*. [Web orria]. <https://educacion.once.es/tiflotecnologia>

Orrú, Sílvia Ester. (2021). *Aprendices con autismo. Aprendizaje por ejes de interés en espacios no excluyentes*. Morata.

Pardo, A., Triviño, M^aA y Mora, B. (2020). *Atención a la diversidad en un sistema educativo inclusivo*. Pirámide.

Peñas, E., eta Hernández, P. (2019). *Guía de estilo. Sobre discapacidad para profesionales de los medios de comunicación*. Real Patronato sobre discapacidad.
<https://www.sis.net/documentos/ficha/544014.pdf>

Plena inclusión. [Webgunea]. www.plenainclusion.org

Pujolàs, P. (2017). *Aprender juntos alumnos diferentes: los equipos de aprendizaje cooperativo en el aula*. Octaedro.

Real Patronato sobre discapacidad. [Webgunea]. <https://www.rpdiscapacidad.gob.es/#>

Sebastián, Margarita. (2021). *Productos de Apoyo para personas con Baja Visión*. CEAPAT

Servicio de Información sobre Discapacidad (SID). [Webgunea]. <https://sid-inico.usal.es/>